


guk baino lehen aipatzen dituzten guk aipatzen ditugun gero eta gauza gehiago.

Beste etapa zer da aste-kari batendako? Egunkaria. Jadanik zenbait hilabete ideia zabaldua izan zen, baina ez da dudarik sekulan baino gehiago behar dela pentsatu Euskal Herriko berriak egunkari batez zabaltea. Horri loturik esaten nuen gauza bat da: hemen Iparraldean garen prentsa idatzikook benebol edo sosis kobratu gabe egiten dugula lan handiena. Eta prentsa idatzian benebola horrek ziurrik mugak baditueta eta, beraz, nonbait behar dela asmatu beste neurri batetara ailegatzeko osoki profesionalki gauza horien egiten.



**Joxe Joan G. de Txabarri**

Guria  
jatetxean  
«Euskara eta komunikabi-  
deak» gaiaz  
eginiko  
kolokioan  
(irailaren  
16an)

**A** lde bate-  
tatik gar-  
bi dago  
euskara-  
ren plan-  
gintza  
instituzio-  
en eginbe-  
har es-  
klusiboa  
dela, bai-  
na beste-  
tik gizar-  
tean eus-  
karak ja-  
so behar  
duen  
oihartzu-  
nean ko-

munikabideek garrantziz-  
ko pisua dute, hil ala bizi-  
koa. Horretaz ihardutea  
eskatuko nieke mahaiki-  
deei.

—Lehendabizikoz, mode-  
ratzaileak emandako egoera-  
ren deskribapenari nabardura  
bat argitu nahi diot, bati-  
pat zera aditzera eman due-  
nean, Hizkuntz Plangintza  
Administrazioaren eskutan  
dagoela soilik, alegia. Mo-  
mentu honetan, dudarik ga-  
be, Hizkuntz Plangintza era-  
gile bakarrak instituzioak di-  
ra, ez bait dago beste giza el-  
karterik Komunitate Autono-  
moaren barnean hauek hain-  
bat aportaziorik dakarrenik  
Euskararen Plangintzan.

Hala ere, honek ez du

esanahi esparru honetan  
instituzioek eskusibotasuna  
beregantzen dutenik, bai  
bait dira bestelako mugi-  
menduak, herrikoiki eta so-  
zialak, zeinak ere eragile  
gertatzen diren Plangintza  
honen gainean. Beraz, ez li-  
tzateke justua hasieran bo-  
tatako baieztapen orokorra  
ez argitzea, bestelako herri  
elkarteak kontutan hartzea  
ahaztuta.

Hizkuntz Plangintza bat  
burutzeak pedagogia herri-  
koiki arazoa planteiatzen du,  
azken finean asmoa herri  
oso bat idea baten atzetik  
ekartzekoa bait da, Euska-  
raren Plangintza baten  
atzetik. Arazorik garrantzi-  
tsuena horretan datza, ma-  
sa soziala gaur egun nazio-  
nalismoak aditzera ematen  
dituen baldintzen barnera  
erakartzea, zeinak argi sa-  
marrak diren Komunitate-  
ko gehiengoarentzat, betie-  
re denontzat nolabait  
amankomunak diren helbu-  
rutatik begiraturaz.

Pedagogia herritar honen  
planteiamendua ez da aski  
garbi geratzen ari herrial-  
deko literatura soziolinguis-  
tikoan. Egitasmoak huts  
egiten ari diren arrazoi na-  
gusiak gizarte mailako inzi-  
dentsia beharrea oinarritu-  
tuko lirerateke, eta beraz, egi-  
tasmu guzti hauek arrakas-  
tarik izango dute, baldin eta  
masa sozial eta herritarrean  
eragiten bada Euskararen  
Plangintzan azpimarratzen  
diren helburuen lorpenare-  
kiko —honetan kominikabi-  
deek ezinbesteko papera jo-  
katzen dute—.

Nik uste dut hemen dire-  
la aurkitutako arazo printzi-  
palak Hizkuntz Plangintza  
honen barnean: gehiago  
esijitzen zaio Administra-  
zioari, areago jo behar due-  
la, helburu askoz ere espe-  
rantzagarriak izan beharko  
litzukeela, ahazturik hasie-  
ra batetik markaturiko hel-  
buru nagusiak zeintzuk zi-  
ren. Pedagogia herritar  
planteamendu baten falta  
dago honetan, eta eraman  
gaitzake distantziamendu  
adierazgarri batetara inteli-  
gentsia politikoaren eta ma-  
sa sozialaren artean, azken  
honek sartu beharko lukee-  
larik plangintza instituzio-  
nalaren barnean.




## Torrealdak puntua jarrita

### Paulo Agirrebaltzategiri

—Euskal Kulturaren Batza-  
rrea da EKB; eta zu zeu horko  
partaide zara hasieratik. Kultur  
talde herritarrak biltzea eta  
koordinatzea du asmozat.

Batek baino gehiagok salatzen  
dio, ordea, kolore bakarrek jendea  
dagoela hor. (Kolore hori po-  
litikoa da noski). Zer diozu?



**K** oloreen arazoa oso katramilatua da ezagutzaren filoso-  
fian.

Ezaguna da esatera: bakoitzak bere betaurrekoen kolore-  
koa ikusten duela dena. Badira, ordea, besteei halako kolo-  
reko betaurrekoak ipintzen ibiltzen direnak, haien begiak  
kolore horretakoak ikusteko.

EKBren politika? a) Euskararik gabe Euskal Herririk ez; b)  
Euskara hizkuntza nazionala; c) Euskara denona eta denon-  
tzat; d) Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra;  
e) Herri erakundeen partaidetza eta protagonismoa euska-  
ren berreskurapenerako.

Oinarrizko koloreak dira horiek euskararen politikan.  
Hortik aurrera euskal kulturaren loraldiaren kuadroa pinta-  
tu behar denon artean.

Jakingarri bat, egun hauetakoa: helduei euskara irakasten  
ari diren elkarte eta erakunde ez ofizial guztiak —kolore  
guztietakoak— EKBn elkarturik ari dira euskara ikastearen  
aldeko jaberazpen-kanpaina egiten

## Puntako argitalpenak

*Iruñeko «Hauzolan» liburudendak emandako datuak*

### Literatur liburuak:

- 1.— «Emily», Patxi Perurena. Elkar.
- 2.— «Irene. Tempo di adaggio», Pako Aristi. Erein.
- 3.— «Teseu», André Gide. Elkar.
- 4.— «Olagarroa», Mario Onaindia. Elkar.
- 5.— «Paixibo», Joxeñ Sagastizabal. Elkar.

### Orotarikoak:

- 1.— «Nafarroako euskal idazleak (I)». J.M. Larrea eta P. Diez de Ulzurrun. Pamiela.
- 2.— «Oilar-jokoa» komikia, L. Astrain. HABE.
- 3.— «Larrun» aldizkaria, 5. zenbakia.
- 4.— «Perurena», Iñaki Perurena. Baroja.
- 5.— «Etxaide jauna», Jon Etxaide, Erein.